

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2011ko maiatzaren 4a. VIII. urtea. 2.219. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Lehen aldiz jarri dute bandera espainiarra Tolosako epaitegiaren aurrealdean

Azken hiruzpalau asteetan, Eusko Jaurlaritzak hala erabakita, lau bandera jarri dituzte Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko epaitegietan

Epaitegiko bandera jarri aurretik, Guardia Zibilaren kuartelekoa zen Tolosan ikus zitekeen bandera espainiar bakarra 03

Tolosako ezker abertzaleak dio udalaren zorpetze maila Gipuzkoako handiena dela

Emandako datuen arabera, %16,7ko zorpetzea du udalak, eta Gipuzkoako batatz bestekoa %6koa da 05



M. LUGARTEMENDIA



Jose Miguel Goicoechea UPNko Leitzako alkategaia

«Komunikazio arazoa dago hemen, udalak dena euskaraz bidaltzen baitu»

Goicoecheak aldatuko lukeen lehen gauza udalak «euskaraz eta erdaraz» komunikatzea izango zen

Elkarrizketa 02

→ **Pilota partidak Orexako Santa Krutz jaiak agurtzeko.** Atzoko Santa Krutz egunarekin batera bukatu dira Orexako festak. Dianarekin hasi zuten eguna, eta pilotalekuan auzoen arteko apustuaren ondotik egin zuten pintxo lehiaketa. Arratsaldean herriko nesken eta mutilen arteko toka eta sokasalto lehia ere izan zen. Jaien amaiera, hala eta guztiz ere, iluntzean iritsi zen oilarraren igoyerarekin. 07

hitza info

HITZAren oharra:

BERRIA Taideak beste pauso bat eman du zerbiltzuen atala inbartzeko, eta inprimatze zentro bat jarri du martian. Otsailetik hona, bertan inprimatu ditugu HITZA egunkariak.

Makina eta lantaldeak berriak baitira, hainbat arazo izan dira hasierako asteetan inprimatze zentroan. Horregatik, zenbait egunetan, arazoak izan ditugu HITZAren banaketarekin.

Inprimatze zentrotako arazoak konpontzeko etengabe ari gara lanean, egoera ahalik eta azkarrena normaldu ahal izateko. Azken asteetan HITZA jasotzeko arazoak izaten ari bazara, barkamena eskatu nahi dizugu. Era berean, eta gure zerbiltzua hobetze aldera, arazoak edukiz gero, HITZAko arreta zerbiltzura jo dezakezue (902-820201 edo harpidetza@hitza.info helbidera).

hitza info

sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **sarrera pareta** du

Benito Lertxundi

Maiatzak 6 • Ostirala 22:00etan Tolosako Leidorren

HITZAK harpidedunentzat **sarrera pareta** du

Ruper Ordorika

Maiatzak 7 • Larunbata 22:30ean Villabonako Olaederra kiroldegian

sariak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira

LAGUN ARO GBC Cal Zaragoza saskibalo partida

Maiatzak 5 • Osteguna 20:00etan Donostiako Itunben

Udal eta Foru Hauteskundeak 2011 >

Imanol Garcia Leitza

Jose Miguel Goicoechea (Leitza, 1961) UPN alderdiko zinegotzia da gaur egun Leitza, eta amaitzer dagoen legealdi hau izan da bere lehen parte-hartzea kargu horretan. Datozen hauteskundeetarako Leitzako Udalerako alkategaia da. Eraikuntzan ari da lanean azken zortzi urteetan.

Leitzako Udalaren zein balantze egiten duzu legealdi honetan?

Gehiengo izan du ANV, eta kasik esan dezagun nahi dutena egin dutela. Balantzea herritarrek egingo dute, gustura gelditu diren edo ez kudeaketa horrekin. Guk ekimen guztiak babestu ditugu, lege barruan izan direnak, arauak betetzen zituzean..., baina ekimen politikoak ez ditugu babestu.

Zer ekimen babestu dituzue?

Etxebizitzak aurrera ateratzea, zaharrentzako ahal den gehiena egitea... Baina udalean sartu ondoren, gauza politikoak izan ziren egin zituzten aurrenekoak: Jesusen Bihotza kendu, arku bat kendu... Horiek kendu zituzten egin zituztenengatik, ez beharrezkoa zelako hirigintzaren aldetik-edo. Guk babestu ditugu etxebizitzak egitea, abeltzainentzako azpiegiturak egitea..., baina ekimen politikoetan ez dugu parte hartu, eta ez dugu parte hartuko ere.

Legealdi honetan banaketa gertatu da UPN eta PPren artean. Zer irakurketa egiten duzu?

Beste zinegotzia beti eseri da toki berdinean, beti izen berdinarekin. Nahiz alderdiz aldatu eta nahiz baja hartu UPNn, gurekin egon da. Beti UPNk altxatu du eskua. Orain ere ez gara haserretuko horregatik. Orain beste alderdi batera pasatu da. DNE, eta hauteskundeetara aurkeztuko dira. Oraindik gauza asko falta dira jakiteko. Bildurrekin ikusi behar da zer gertatzen den. Horrek dena aldatu dezake. Auto judizialekin egon naiteke ados edo ez, baina onartu egingo dugu beti. Lehen ere ANV hemen zen eta ez genuen ezer esan. Orain ez badiete uzten, ez dugu ezer esango. Guk beti bezala jarraituko dugu.

Zein dira zuen egitasmoak datorren legealdirako?

Guk betiko puntuak ditugu. Hemen arazo handi bat dago udalaren aldetik komunikazio mailan. Aurreneko gauza hori aldatzea izango zen. 2.800 biztanle inguru izango gara, eta asko daude euskara ez dakitenak, eta jakin beharrik ez dutenak ere. Bada, udalak dena euskaraz bidaltzen du. Zergatik? Aurreneko lana, beraz, udalak euskaraz eta erdaraz komunikatzea izango zen. Guk euskara defendatzen dugu, baina zergatik ez dugu ikasi behar erdaraz eta ingelesez? Gure ustez, du-darrik gabe, hiru hizkuntzak ikastea bultzatu behar da. Bigarren

Jose Miguel Goicoechea ◊
UPN alderdiko Leitzako alkategaia

Goicoecheak udalean aldatuko lukeen lehenengo gauza komunikazioa da: «Euskaraz eta erdaraz izango zen».

«ANVk dio inposaketa dagoela; inposaketak nik jasotzen ditut»



L.GARCIA

kontua: ikurrinaren inguruan arazo asko izan dira. Azkeneko epaia kontrakoa izan zuen udalak, ikurrina kanpoan zuelako. Beraz, hori garbi jarriko genuke, legeak esaten duen bezala.

Beste zer proposamen dituzue?

Hemen gehienak baserriarrak dira. Gauzak gaizki daude hemen, eta ez bazaie laguntzen, are okerrago joango dira. Zer egin du udalak? Pista batzuk egin ditu, ur batzuk jarri ditu, baina deus gutxi. Beste gai bat teknologien ingurukoa izango zen, hau da, herritarrei informazio guztia bidaltzea teknologia berrien bitartez. Etxebizitzaren aldetik, 40 egiten ari dira Leitza. Orain zortzi urte hasi ziren horretan. Hemen, etxebizitzak egiten lagundu beharrean, eta hauek ahal den merkeenak izateko ahalegina egin beharrean, dena izaten da traba.

Lanaren egoera nola ikusten duzu?

Lanari dagokionez, Leitza geldirik dago. Oraindik leku batzuk badaude herrian urbanizatzeke, baina udala ez da saiatu dagoen leku apurra urbanizatzen edo inbertsioa ekartzen. Ez du deus egin lau urte hauetan. Atekabeltz konpondu dute, baina zertarako? Horretan jartzen dira, baina udala ez da saiatu lanpostuak sortzen. Mendialdea Mankomunitatea lortu du udalak, eta lanpostu batzuk sortu dira, baina ez da

gauza bera lana Leitza ekaritzea.

Kirolen gaian zerbait proposatzen duzu?

Agian ametsa izango litzateke, baina Leitza kiroletan dena daukagu; txirrindulariak ditugu, Tourrean etapa bat irabazi duenik ere badago, eta baditugu pilotariak... Edozein herritarra joaten zara eta sekulako frontoia dauka-

↓ Gertutik

■ **Zer egiten duzu politikatik deskonektatzeko?** Nik ederki gozatzen dut gauza guztiarekin. 06:30ean jaiki, nire lanak egin, eta irailan hasita larunbatetan ehizatzeria joaten naiz.

■ **Herritar bezala, zerk erregatzen zaitu egunerokoan?** Birlibgune bat egin zen herri sarre-lanari dagokionez, Leitza geldirik dago. Oraindik leku batzuk badaude herrian urbanizatzeke, baina udala ez da saiatu dagoen leku apurra urbanizatzen edo inbertsioa ekartzen. Ez du deus egin lau urte hauetan. Atekabeltz konpondu dute, baina zertarako? Horretan jartzen dira, baina udala ez da saiatu lanpostuak sortzen. Mendialdea Mankomunitatea lortu du udalak, eta lanpostu batzuk sortu dira, baina ez da

te. Ematen du konplexua daukagula gure frontoia erakusteko. Zergatik Leitza ezin du izan frontoi bat? Eta zergatik ezin dugu izan jaialdi bat bi hilabetez behin? Bestalde, Leitza beti dugu arazoa igerilekuarekin. Ez da sekula estali, eta leitzarrek Leikunberrira joaten dira. Jendea herrian gelditzeko baliabideak jarri behar dira.

Eta hori nola egin daiteke?

Askotan esaten da inbertsio bat ezin dela gero amortizatu. Baina udala ez da enpresa bat. Udalak egin behar duena da duen dirua kudeatu, zerbitzua eman, eta aldi berean, lanpostuak jartzen baditu, zer gehiago behar da? Ez da inbertsioa amortizatuko bi urtetan, baina hamabost urtetan amortizatzen bada... ez dago gaizki. Udalak baditu errekurso batzuk, eta ez ditugunak lortzen saiatu behar gara. Leitza ez dugu beste aukerarik. Turismoa aipatzen da, Plazaola dugula... Etorrtzen dira bizikletan eta Uitzira joaten dira, baina ez dira sartzen herrira.

Krisi ekonomikoaren aurrean, zein balantze egiten duzue orain arte udalak egin duenaren inguruan? Zer egingo luke UPNk?

Leitza zorra jaitsi da %26. Hori egia bada, nahikoa egin dute. Hemen aurrera, aurrekontu bat izango dugu eta horrekin moldatu behar. Nondik aterako dugu dirua? Daukagun zerga gutxiarekin lortu behar dugu dirua. Basoek eta mendiek ez dute lehen zuten balorea. Gobernura joan behar da: ekimenak prestatu eta koherentek badira, ahal diren diru laguntza gehienak lortu. Baina ez dira saiatu herrira inbertsioak ekartzen. Orain dela zortzi urte harrobi bat egiteko asmoa zegoen. Erreferenduma egin zen azkenean. Nondik bizi gara bada? Etxebizitzak harrobitik etortzen dira. Milaka lagun harrobitik sortzen duten jardueretan egiten dute lan. Hemen lau kamioi pasa behar dutela eta, arrisku handia dagoela diote. Zenbat herritatik pasatzen dira kamioiak? Jendea etortzen da esatera lanpostuak

sortuko dituztela, eta makilekin bidaltzen dituzte herritik. Promotoreren bat etorriz gero, segituan hasiko ziren kutsadurak direla eta besteak direla, trabak jartzen. **Euskarazko komunikabide ez publikoek editorial bateratua argitaratu zuten orain gutxi, diru laguntzak bermatzeko. Zer diozu horretaz?**

Leitzako Udalak beti eman izan ditu laguntzak aldiakarietarako-eta. Dena euskaraz bidaltzen du, eta euskarari laguntzen zaio. Erdaraz, deus... Eta ezin al da erdaraz ezer egin? ANVk esaten du hemen inposaketa dagoela. Inposaketa? Ni UPNkoa naiz eta zer inposatzen dut hemen? Inposaketak jaso egiten ditut nik. Mila al-diz esan arren gauzak euskaraz eta erdaraz bidaltzeko, dena euskaraz bidaltzen didate. Zergatik ez bieie lagundu? Hemen alde bakarra inposatzen da. Horrek asko erretzen nau.

Maxurrenea etxean Guardia Zibilarren kuartela ez gotea eskatu izan dute hainbat herritarrek. Zer iritzi duzu gai horri buruz?

Guardia Zibilarren kuartela beharrezkoa da Leitza? Niri ez didate traba egiten. Traba egiten badio norbaiti, orduan beste leku bat jarri beharke zaito kuartelari. **Maxurrenea herriarentzat** esaten da, baina hor egongo balitz gaztete bat, Atekabeltzen bezala, ez zen deus gertatuko. Maxurrenean arazoa erabilera da, ez jabetasuna.

Aro berri bat ireki da Euskal Herrian; ETaren agiriak, Bildu alderdia... zer duzue esateko honen inguruan?

Urtarriean aldarrikatu zuen su-etena ETak. Eta orain egun batzuk iraultza zerga bertan behera utzi duela esan du. Hain zaila al

«Udalaren ekimenak babestu ditugu, baina ez ekimen politikoak izan direnak»

da indarkeria behin betiko, hainbeste urteren ondoren, eta gertatu den gauza guztien ondoren, bertan behera uztea? UPNk zer inposatzen du bada Leitza? Aldrebes, guri inposatzen digute. ETarena ez da sinesgarria; edo dena utzi, edo ez utzi. Egundale-txean indarra duena eskua altxatzea edo legebiltzarrean botoia sartzatzea da. Zer gehiago behar dute? Hemen, Leitza, ezin dut bandera espainiarra jarri, egurra eman edo akabatu egingo naute-lako; niri ez dit axola aurrekoak ikurrina jartzea. Zer inposatzen dut ni akabatzeke? Ni leitzar naiz. Zer da normala hemen? Udalletxeo mahaietan esan nuen: «Hemen ez dago siglarik, Leitza-erentzako lanean hamaika lagun, hamaika leitzar, gara». Zinegotzi deitzen zaigu orain; garai batean herri-gizona esaten zen, hau da, herriarentzat lana egiten zuena.

Gutuna

Herritarren ahotsa errespetatu

**Azken lau urtetako legealdia-
ren inguruko, eta herriko osta-
tuaren auziaren inguruko es-
kutitza.**

Joan den asteazkenean, apirilak 27, Leaburu-Txaramako herrian lau urte hauetako azken udalbatzarra izan zen.

Leaburu-Txaramako ezker abertzalea beste behin ere bertan egon zen, aurretik beste zenbaitetan egin duen bezala, mezu bat argi adieraziz: Leaburu-Txaramako udalbatza bahliturik dagoela eta herritarren hitza errespetatu behar dela.

Udalbatza horretan Leaburu-Txaramako ezker abertzaleak orain dela hilabete batzuk salatu zuena argi geratu zen.

Abenduan Leaburu-Txaramako udalak Leaburu-Txaramako lege martxan jarri ahal izateko Manuel Enrique Gregorio zinegotziak sartu behar izan zuen udaletxean.

Horren harira ezker abertzaleak eginiko salaketan adierazi genuen bezala, herriak ez zikion Bide Berriak taldeari lau eserleku betetzeko adina bozka eman, eta pauso hau herriko Ostata martxan jarri ahal izateko urrats soila besterik izango ez zela salatu genuen.

Hau guztia pasa den asteazkenean izan zen udalbatzarrean argi geratu zen, ez baitzuen laugarren zinegotziak bertan parte hartu.

Guztioi ikusi dugun bezala, Bide Berriak taldeak lau urte hauetan herriaren hitzari kasurik egin gabe eta soilik alderdien lege faxistari kasu eginez, herrian burutu dituen lanak, oso eskasak izan dira.

Egoera politiko honetan Leaburu-Txaramako ezker abertzaleak beti herriaren hitza errespetatuko duela adierazten du eta beste guztiei ere gauza bera egin dezatela eskatzen diegu.

■ **Leaburu-Txaramako ezker abertzalea.**



Tolosako epaitegian bandera europarra eta espainiarra jarri dituzte, ikurrinarekin eta Gipuzkoako armarrria duenarekin batera. R. CALVO

Bandera espainiarra jarri dute Tolosako epaitegian

Lehen aldiz jarri dute bandera espainiarra epaitegi kanpoaldean; 1981eko banderaren legea jarraitu du Eusko Jaurlaritzak

Gipuzkoako beste bost barruti judizialean ere gauza bera egin dute azken asteotan

Itzea Urkizu Tolosa

Lau bandera jarri berri dituzte Tolosako epaitegian; tartean espainiarra. Azken hiruzpalau asteetan, eta Eusko Jaurlaritzak hala erabakita, Euskal Autonomia Erkidego osoko epaitegietan ezarri dituzte lau bandera: ikurrina, Espainiako bandera, Europako bandera eta Foru Aldundikoa. Gipuzkoan, zehazki, dauden sei barruti

judizialean ezarri dituzte banderak: Tolosako epaitegian bezalaxe, Donostian, Irunen, Eibarren, Azpeitian eta Bergaran. Hain zuzen ere, Bergaran, burua estalita zuten bi lagunek su eman zioten Espainiako banderari, pasa den ostegunetik ostiralerako gauean.

1981eko Banderaren legea

1981eko urriaren 28an, Juan Carlos I.a erregeak eta Leopoldo Cal-

vo Sotelo Gobernuko presidentek, 39/1981 legea sinatu zuten, Banderaren legea, hain zuzen. Bertan, Espainiako banderaren erabilerarako hainbat arau zehaztu zituzten, banderako oihalaren koloreetatik hasita, neurri edo armarraren erabileraraino. Lege honetan aurki daiteke, era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko epaitegietan banderak jarri izanaren arrazoiak.

Hirugarren artikuluko lehenengo puntuak horrela dio: «Espainiako banderak airean ibili behar du kanpoaldean, eta lehen-tasunezko lekua hartu behar du estatuko administrazio zentral, instituzional, autonomiko edo herri-administrazioetako eraikinetan». Bide beretik, laugarren eta bosgarren artikuluek,

autonomia erkidegoetan, edo udaletxe nahiz foru aldundietan, bandera hau Espainiako banderarekin batera erabili behar dela diote. Azkenik, aipatzekoa da 2007ko uztailaren 24an Auzitegi Gorenak epaia eman zuela lege honen inguruan, Espainiako banderak «gunero eta iraunkortasunez airean ibili behar» duela esanez. Eusko Jaurlaritzak, beraz, banderaren legeari jarraituz ezarri ditu, azken hiruzpalau asteetan, EAEko epaitegietako banderak.

Eskualdeko egoera

Epaitegiko bandera jarri baino lehen, Guardia Zibilaren kuartelakoa zen Tolosan ikus zitekeen bandera espainiar bakarra; Leitzan ere, egoera berean daude.

Eskualdean, berriz, Lizartza da bere udaletxeko balikoan Espainiako bandera zitzilikatu duen herri bakarra. 2007ko udal hauteskundeetan, ANVren ilegalizazioaren ondoren, eta EA.JK bozka zuria eskatuta, PPK irabazi zuen alkaldetza 27 bozkarekin. Horrela beraz, Regina Otaola alkateak, Espainiako bandera zintzilikatu zuen balkoitik, ikurrinarekin eta herriko banderarekin batera.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Sukaldaria Villabonan.** Sukaldaria behar da eguneko menuak, kazuelak eta taberna batego sukalde arduradun izateko. Euskara jakitea ezinbestekoa da, baita antzeko lanetan eskarmentua izatea ere. Bidali curriculum, villabona2011@gmail.com helbidera. Informazioa: 661 36 94 24.

■ **Ileapaindegia.** SEsperientzia-dun pertsona bat behar dugu lanaldi osorako. Interesa due edonork, bidal dezala curriculum, metxa2@yahoo.es helbidera.


ALOKAIRUA

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza alokatzeko moduan luruan. 80 metro karratu, bi logela eta garaje

txikia aukeran. Interesatuak, deitu 636 53 00 00 telefono zenbakira.

SALGAI

■ **Aulkitxo.** Salgai 'Jane' haur aulkia, bere osagai guztiek: kapazoa, maxi-cosia eta patinetea. Interesa duen edonork, dei dezala 678 47 66 12 telefono zenbakira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Joan den urtean 120 lagun inguruk parte hartu zuten, eta aurten ere kopuru bertsua espero dute. HITZA

Duatloiaz lagun artean gozatzeko aukera izango dute herritarrek larunbatean

Javier Urkolaren omenez TTTk antolatzen duen hamargarren edizioa izango da

Itzea Urkizu

Hamargarrenez ospatuko du Tolosaldeko Triatloi Taldeak, Javier Urkolaren omenezko duatloia. Larunbat honetan izango da, maiatzaren 7an, arratsaldeko 17:00etan hasita.

2002. urtera bitarte sei duatloi jarraian egin zituzten arren, eten txiki bat izan zuten TTTko taldekideek, eta 2008an berriro hasi ziren proba antolatzen. Aurten, antolatzen duten hamargarren proba dela eta, ekitaldi berezi bat izango da, gainera.

Larunbateko duatloian egin beharreko probak «xamurrak» direla diote antolatzaileek. Horrela, erabat laua den ibilbidea izango da burutu beharrekoa. Lehenik eta behin, parte-hartzaileek

bi kilometroko egin beharko dituzte korrika, herriko Alde Zaharreko kaleetan barrena. Lehenengo korrika saio amaitu eta gero, bizikleta hartu beharko dute, Tolosatik Anoetarako joan-etorria hiru aldiz egiteko; 15 kilometro guztira. Amaitzeko, beste bi kilometroko ibilbidea egingo dute Alde Zaharrean.

Aurten, duatloiko gune nagusia Plaza Berria izango da. Han egin beharko da izen-ematea, eta era berean, han bilduko dira partaideak probaren hasieran. Bizikletak uzteko lekua ere Plaza Berria izango da, eta duatloian beraren helmuga ere han izango da, bigarren korrikaldiaren ondoren.

Izen-emateak larunbatean bertan egingo dira, eta 5 euro ordaindu beharko ditu parte-hartzaile bakoitzak; bakarka, bikoteka nahiz hiru kide edo gehiagoko taldeetan parte hartu ahal izango da.

Gaztetxoek ere kirolari

2011ko duatloia honetan, gaztetxoek ere izango dute beren lekua. Izan ere, TTTk txirindularitza

eta atletismoa uztartzen dituen jarduerak hau ezagutzeko aukera eman nahi die belaunaldi berriei. 12 urte bitarteko neska-mutilek parte hartu ahal izango dute, eta honakoa izango da burutu beharko duten ibilbidea: Plaza Berritik Arostegieta kalera, eta hemendik Atadi kaleraino igo ondoren, Erremontari kalerik barrena Plaza Berrira jaitsiko dira berriro ere. Ibilbidea korrika hasiko dute, gero bizikletan jarraituko dute, eta berriro ere korrika egingo dute azken itzulia.

Probaren amaieran, irabazleek ez dute diru saririk jasoko. Tolosaldeko Triatloi taldearen helburua lagun artean kirolaz gozatzeko da, eta bide horretan, kirol sorten zozketak, afari zozketak eta antzekoak egingo dituzte ekitaldia amaitutakoan.

Javier Urkola omenduz

Javier Urkola orain dela hamabost urte zendu zen, 1996. urtean. Istripua izan zuen ibilgailu batekin, bizikletan entrenamendua egiten ari zela.

Tolosaldeko Triatloi Taldeko kideek, Urkolak gazteak kirolaren munduan murgiltzeko egin zuen lana azpimarratu nahi izan dute, eta baita herri mailako kirol probetako parte hartzea sustatu zuen modua ere.

Tolosaldeko Triatloi Taldeak, Javier Urkola bera omendu nahian, hain justu berak irakatsitako baloreak izan dituzte oinarri, jada hamargarrenez ospatuko duten ekitaldia antolatzerakoan: «Datozen belaunaldietako kide berriei ere irakapen horiek helarazi nahi dizkiegu».

• tolosa@hitza.info

→ Laburrak

Aurrematrikula epea irekita musika eskolan

TOLOSA > Eduardo Mokoroa Udal Musika Eskolak jada ireki du ikasle berrientzako aurrematrikula egiteko epea. Maiatzaren 31 biarte aukera izango da, izena emateko. Lehenagotik musika eskolako ikasle direnek, berriz, maiatzaren 13ra bitarte egin beharko dute hurrengo ikasturterako aurrematrikula. Jada ikasle direnek, baina musika tresna lehenengoz hartu behar dutenek, hilaren 23tik 31ra eman beharko dute izena. Bulegoko ordutegia honakoa da: 10:00etatik 13:00era.

Pintura abstraktuen ikastaroa Aranburun

TOLOSA > Naroa Armendariz margolari iruindarrak tailer berezia eskainiko du edozein herritarrentzat, bihar, hilak 5, 19:00etan Aranburu jauregian. Ordu eta erdiko iraupena izango du, eta atal teorikoa nahiz praktikoa azalduko ditu, musikaz lagundurik. Helburu nagusia, pintura abstraktua tolosarrei hurbiltzea da.

Herri Urratsera joateko autobusa antolatu dute

TOLOSA > Datorren igandean Herri Urrats ospatuko dute Senperen (Lapurdi). Iparraldeko ikastolen festa honetara joateko, Galtzaundiko Euskara Taldeak autobusa antolatu du. Irteera 09:00etan izango da tren geltokitik, eta Senperetik 19:00etan irtengo dira, Tolosara itzultzeko. Prezioa 12 eurokoa izango da, eta bazkideentzat berriz, 10 eurokoa. Izen-ematea Galtzaundiko erredakzioan bertan egin daiteke, edo bestela, 943 65 50 04 telefonon.

DBH 3. mailako gurasoentzat bilera

TOLOSA > Gaur arratsalderako, DBHko 3. mailako ikasleen gurasoei zuzendutako bilera antolatu du Orixeko Institutuak. 4. mailan, ikasle bakoitzak aukera askeko 3 irakasgai aukeratu beharko ditu, eta horren inguruko informazio saioa izango da. Bilera, beraz, gaur izango da, 18:30ean, Orixeko e-Gelan (Gorosabel eraikinean).

Guardetxetik Larraitzera irteera Oargi elkarteok

TOLOSA > Datorren igandean, hilaren 8an, Oargi Mendi Elkarrekin irteera egingo du. Ibilbidea Guardetxean hasiko dute, eta tarteko bidean dauden Urrain, Ganbo, Ganbo Txiki eta Txindoki gailurrak igoko dituzte, azkenik Larraitzera jeisteko. Ibilbideak 20 kilometroko luzera izango du, eta 6-7 ordutan burutuko dute. Guardetxeraino joateko autobusa 08:00etan abiatuko da Usabal kiroldegiko aparkalekutik. Izena emteko, info@oargi.org helbidera idatz daiteke, edo bestela, 688 69 86 42 telefonora ere dei daiteke.

Ostalaritzako langileentzat ikastaroa

TOLOSA > Tolosaldea Ikasturteko sektoreko langileentzat ikastaroa antolatu dute. Elikagaiak ondo kontserbatzeko ezarritako dauden tresna eta prozedurak erabiltzea, elikagaien pozoidura eta infekzioak atzemateko, eta elikagaiak tratamendu higienikoak manipulatu eta kontserbatzea bezalako gaien landuko dituzte. Ikastaroa hilaren 5ean eta 6an izango da, Tolosaldea Ikasturtearen bertan, eta izena emateko epea gaur arratsaldeko 20:00etan amaituko da.

Mahai ingurua egingo dute alderdi politikoekin

Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde herri plataformak antolatu dituen jardueretako bat izango da

I. Urkizu

Orain gutxi sortutako Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde koordinakundeak mahai ingurua antolatu du herriko hainbat alderdita-ko ordezkariekin.

Mahai ingurua bihar izango da

19:30ean, kultur etxeko areto nagusian. Parte hartuko duten alderdi politikoak, Aralar, Bildu, Ezker Batua, Hamaikabat, EAJ eta PP izango dira.

Aipaturiko alderdi politikoei, bi galdera nagusi egingo dizkiete: *Nola defendatu eta ahalbidetuko duzu espezialitateen anbulatorio publikoa baliabidez hornitzea, behar bezalako arreta emateko? eta Zure alderdiak defendatuko al du Tolosaldeko ospitale publikoa eta behin betikoa berehala izatea?* Moderatzailea Jon Mirande kazetaria izango da.

Ezker abertzalea: «Tolosako Udalaren zorpetze maila Gipuzkoako handiena da»

‘Gipuzkoa.net’etik datu «kezkarriak» lortu dituzte; alderdi politiko guztiekin elkartzeko asmoa azaldu dute

Ondorio politikoak

Datuen irakurketa egin ondoren, ezker abertzaleak ondorio politikoak atera ditu: «Egoera larria da, eta jakitun gara udaleko teknikariekin ere kezka hori adierazi

dietela agintariei». Jokin Bildarratzi «gezurretan ibiltzea», eta «benetako egoera ezkutatu nahi izatea» leporatu die ezker abertzaleetiko udal finantzak euren ustez kiebra edo porrot bidean aur-

kitzen dira: «Egoera hau bidertzeko neurri gogorrak hartu beharrean izango dira ondorengo urteetan udal taldeak. Jakitun gara zulo ekonomiko hau estaltzeko EAJ Tolosa Gasa udal enpresan dituen akzioak subastan saltzeko erabakia hartzen ari dela».

Ezker abertzaleak salatu duenez, EAJk «arduragabekiaz» jokatu du udal finantzen gestioan: «Gastuen planifikazio eza egon da azken lau urteetan; dirua ardua gabe xahutu dute. Jokin Bildarratzi bere irudi publikoak kezkatu, bere promozio pertsona-

laz gehiago arduratu da udal finantzaz baino». Azkenik, datoren agintaldirako «udala hipotekaturik» utzi dutela ere salatu dute ezker abertzaleak.

Bildu duten informazioa, irakurketa tekniko eta politikoa barne, datozen udal hauteskundeetan aurkeztuko diren alderdi eta talde politiko guztien eskura jartzeko asmoa azaldu dute ezker abertzalekoek. Bilera deialdiak alderdi guztiei egitekoak direla esan dute; «Tolosak etorkizun hori ez baitu merezi, eta gehiago gezurretan ez aritzea exijitzen dugu».

Asier Imaz Tolosa

Egungo alkateak, Jokin Bildarratzi, udala ekonomikoki ondo aurkitzen dela esan berri du. Ezker abertzalearen ustez, ordea, udalaren datu ekonomikoak «kezkarriak, larriak, arriskutsuak eta erabat negatiboak dira etorkizun hurbilerako». Irakurketa hau egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiak «apirilaren 20an eguneratutako datuak» erabili dituzte, *Gipuzkoa.net* webgunetik lortuak.

↓ Udalaren egoera

EZKER ABERTZALEAREN ARABERA

- **Zorpetze maila, Gipuzkoako handiena.** Gipuzkoan batz bestekoa %6koa da, Tolosako Udalarena %16,7koa.
- **EAJren agindupean, zorpetze mailak gorakada ikaragarria.** Gaur egun, udalaren zorpetze maila 16,7koa da. Honek esan nahi du, diru sarrera arruntaren %16,7a, 4.313.247 euro, bankuei gastu finantzarioak ordaintzeko erabali behar dela aurten.
- **Neurri beretsuko herrien zorpetzearen hirukoitza.** Hernanik %2,2ko zorpetze maila; Hondarribiak %0koa; Lasarte-Oriak %3,7koa eta Tolosak %16,7koa.
- **Muga gairiditako arriskua.** Euriborraren eboluzioaren arabera gairiditako legezko zorpetze maila %25ekoa baita.
- **Aurrezki garbia negatiboa da: -%4,6koa.** Aurrekontuetan aurreikusitakoa baino gehiago gastatu da. Sarrera arruntak ez dira nahikoa gastuei gehi amortizazioei aurre egiteko.
- **Kiebra bidean.** Enpresa pribatua balitz udala, horrela jarraituz gero, porrota aitortuko litzaiteke irizpide teknikoaren arabera.
- **Epe motzeko etorkizuna hipotekatu.** Gipuzkoako Foru Aldundiak %0,0ko zorpetze muga jarri dio Tolosako Udalari.
- **Zor bizia %61,9koa: 16.020.769 euro.** Hitzartutako epe luzeko mailegetatik amortizatu gabe dagoen zatia oso handia da.



INTERNET zure MUGIKORREAN DOAN BETIKO.



ETXEAN INTERNET IZATE HUTSAGATIK, MUGIKORREAN DOAN DAUKAZU INTERNET

Orain, mugikorrean bertan duzu posta elektronikoa, sare sozialak, nabigazioa eta Interneten behar duzun guztia.

Aktibatu orain www.euskaltel.com/ats3gindut web gunean.

Etxean Internet (Banda Zabal Finkoa) kontratatatu duten edo Euskaltelen Konekta-pintxo (Konekta 500 MB edo hortik gorakoa) duten bezeroentzako Euskaltelen telefonia mugikorreko abantaila eskusiboa da AT3GINDUT.



Irudia › Anoeta**ANOETAKO BILDUKO HAUTAGAIAK**

Anoetan ere aurkeztu dute jada Bildu koalizioak prestatu duen hautagaien zerrenda. Maiatzaren 22an izango diren udal hauteskundeetarako alkategaia, Pedro Maria Estanga izango da. Bere atzetik, honako herritarrek osatzen dute koalizio-

aren zerrenda: Maialen San Sebastian, Mikel Aiebe, Miren Josune Eizmendi, Aratz Luisa, Izaskun Jauregi, Aitor Gurrutxaga, Joana Garmendia, Iban Yurrita, Nuria Castaño, Iñaki Urkola eta Maria Jesus Luluaga. HITZA

→ **Laburrak****Bilduren aurkezpena gaur, Gaztelekuan**

AMASA-VILLABONA › Amasa-Villabonako Bildu koalizioak Galder Azkue alkategaia eta gainontzeko hautetsiak aurkeztuko ditu gaur, 19:30ean Villabonako Gaztelekuan. Era berean, herri programa aurkeztuko dute. Bertaratzeko gonbita egiten diete herritar guztiei.

Adindu eta ezinduen bideo emanaldia gaur, eskolan

BIDEGOIAN › Gaur 11:00etan, Bidegoiango eguneko zentroko adindu eta ezinduen bideo emanaldia izango da eskolan. Eskolako haur eta irakasleei, eguneko zentroko onuradunen familia koei eta ikastolako guraso elkarte kideei zuzendua izango da. Helburuak zahartza-

roa ezgaitasun garai bezala desmitifikatzea, belaunaldi desberdinetako pertsonen loturak sendotzea eta ezagutza eta baloreen elkar trukaketa izango dira.

Zuberoako irteeran izen ematea zabalik dago

VILLABONA › Aizkardi Mendi Elkarteak Zuberoara egingo dute irteera igandean. Hauze, Beguz, Iridoy, Argibel eta Montory pasaka dituzte. 20 kilometro ditu, eta zazpi orduan egitea aurreikusten dute. Hauze herritik abiatuko dira, eta Irutigitik pasa ostean, Edrera igoko dira. Handik Iridoyra, eta Lafatiguera jaitsiko dira, Argibelera igotzeko. Montory herrian bukatuko dute. Igandean 06:00etan abiatuko dira Olaederratik. Izena emateko azken eguna, bihar izango da. 20:00etatik 22:00etara, 649 71 71 82 telefonora deituz, edo Aizkardi Elkartera joanez eman daiteke.

Aurtengo Maiatza Saltsaneko protagonista klima aldaketa izango da

Dokumentala, film laburrak, hitzaldiak, emanaldia, kontzertua, San Isidro eguna, antzerkia,... izango dira

Eneritz Maiz Zizurkil

Dagoeneko hasi den Maiatza Saltsan aurkeztu dute Zizurkil. Hilabete osoa, ekitaldiez beteta dator, eta aurtengorako gaia *Klima aldaketa, Zer egin dezakegu?* aukeratu dute. Hala ere, bestelako gaiekin lotutakoak ere badira; musika, dantza, antzerkia, filmak, Anaieratze Eguna,...

Hilaren 14ean, larunbatean, Villabonako Oinkari Dantza Taldeak, *Ari du* ikuskizun berria eskai-

niko du 22:00etan, Intxaur pilotalekuan. Sarrerak erosteko aukera, hilaren 9tik aurrera izango da Zizurkilgo udal bulegoetan. Helduak 5 euro, eta 14 urtetik behar koei 3 euro ordaindu beharko dute.

Hilaren 15ean, San Isidro eguna ospatuko dute. 11:00etan meza izango da, eta 12:30ean, Azurmen-di-Irazu, eta Otaegi-Larrañaga aizkolariak, eta Aimar Irigoien eta Urtzi Telleria harri-jasotzaileak izango dira. Eta 14:00etan, Plaza Etxeberrira jatetxean bazkaria egingo dute, trikitilari eta bertsolariekin.

Euskal Film Laburren VIII. Zirkuituan, *Artalde, Ondar Ahoak, Blank Postcards, Maritzu, S@rtalde, Esku-Titi, Biak Bat, Barrura Begira* eta *Nire bista ja-*

boritua ikusteko aukera izango da. Saioa Aizpurua, *Txintxeilla* filmaren zuzendaria, ere bertan izango da eztabaidatzeko.

Maiatza bukatzeko, Senidetze eguna ospatuko dute Villabonan.

↓ Maiatza Saltsan 2011: 'Klima aldaketa, zer egin dezakegu?'

GAUR

■ **'Jubilación activa y solidaria' hitzaldia.** 17:00etan Elizpe Jubilatuko Elkarteak antolatutakoa.

BIHAR

■ **'Lurra, zoria bailitzan' liburuen aurkezpena.** Iñaki Pexarroman kazetariak egingo du 19:30ean, Atxulondon.

MAIATZAK 6, OSTIRALA

■ **Aiztondoko Kantu Jira.** Elbarrenan abestuz ariko dira.

MAIATZAK 10, ASTEARTEA

■ **'Flysch, Haizetan Hitz' dokumentala.** Asier Hilariok eskainiko du 19:00etan Atxulondon.

MAIATZAK 11, ASTEAZKENA

■ **Trikitixa kontzertua.** Loatzo Musika eskolako ikasleek eskai-



Lazkano eta Larrea, ekitaldien berri ematen. E. MAIZ

niko dute 19:00etan Atxulondon.

MAIATZAK 14, LARUNBATA

■ **'Ari du' emanaldia.** Oinkariaren emanaldia 22:00etan Intxaur pilotalekuan.

MAIATZAK 15, IGANDEA

■ **San Isidro eguna.** Meza, aizkolariak, harri-jasotzaileak eta bazkaria Plaza Etxeberrin.

MAIATZAK 17, ASTEARTEA

■ **'Atez-ateko zabor bilketa' hitzaldia.** Imanol Azpirozek, Usurbilgo Udaleko zinegotziak, eskainiko du 19:00etan, Atxulondon.

MAIATZAK 20, OSTIRALA

■ **Euskal Film Laburren VIII. Zirkuitua.** 20:00etan Atxulondon bederatzi film labor eskainiko dituzte.

MAIATZAK 21, LARUNBATA

■ **Emotikon.** Kale Antzerkia Ados Teatroren eskutik Pásus Plazan, 18:00etatik aurrera.

MAIATZAK 22, IGANDEA

■ **Zizurkilgo XIII. Biatloia.**

MAIATZAK 25, ASTEAZKENA

■ **'Energia berriztagarriak Euskal Herrian' hitzaldia.** Javier Marquese eskainiko du 19:00etan Atxulondon.

MAIATZAK 26, OSTIRALA

■ **Ipuin kontalariak.** Segundo Monteseko Eskolarako dirua biltzeko Otañoko ikasleek saioak 15:00etan Liburutegian.

MAIATZAK 29, IGANDEA

■ **Senidetze Eguna.** Segundo Montesekin senidetuta daudela ospatzeko eguna, Villabonan.

ZORROZTU ZURE ETORKIZUNA

Goierrri Eskolak **Ate Irekien Jardunaldia** gonbidatzen zaitu, gure eskaintza akademikoa ezagutzeko.

Maiatzak 7, larunbata, 10:30ean
www.goierrrieskola.org

Granja auzoa, z/g • ORDIZIA • 943 880 062

Goierrri eskola



Txirrindularitzak Gipuzkoan garrantzi handia izan zuen. HITZA

Txirrindularitzaren historia argazki erakusketan bilduta

Argazki erakusketa goizez eta arratsaldez ikusgai egongo da, kultur etxean, hilaren 20ra arte

M.U. Ibarra

Atzotik aurrera, Ibarako Kultur Etxean ikusgai dago *Gipuzkoako Txirrindularitza* argazki erakusketa. Kutxako Gizarte Ekintzak babestutako erakusketa hau ber-

tan egongo da hilaren 20ra arte. Honakoa da ordutegia: 10:30-13:00 eta 15:30-21:00.

Bilduma honetan gipuzkoarrek txirrindularitzarekiko duten zaletasuna argi eta garbi ikus daiteke. Gure herriak kirol jardueraren honetik duen interesa gogorarazten dute 95 argazki hauek. Bertan ohartuko gara kirol honi diogun zaletasunak bizirik segitzen duela gaur egun ere, baina era berean ikusiko dugu, denborak aurrera egin ahala, zenbait gauza aldatu egin direla.

Amaitu dira Santa Krutz jaiak

Santa Krutz egunaren ondoren, oilarraren igoerarekin agurtu zituzten jaiak 2012. urtera arte

M. Ugartemendia Oresa

Atzo, oilarraren igoerarekin eman zieten amaiera Oresan Santakrutzetako Asteasuko Elizmendi auzoan egindako amaitu zituzten ospakizunak, baina Oresan Santa Krutz eguna ospatu ondoren amaitu zituzten herriko festak.

Dianarekin eman zioten hasiera egunari. 11:00etan herritar guztiak adi jarri ondoren, 13:00etan auzoan arteko apustua egin zuten pilotalekuan. Bertan hiru auzotako hiru bikotek jokatu zituzten pilota partidak. Jende asko hurbildu zen pilota auzoan arteko partidak ikustera. Amaitu ondoren, pintxo lehiaketa egin zuten, herriko pintxorik onenak norenak ziren erabakitzeko. Arratsaldean, herriko neskek mutilen aurka



Elbarrenekoak kalekumeen aurka jokatu zuten partida bat. M. UGARTEMENDIA

aritu ziren tokan eta sokasaltoan. Hala ere, gauza on guztiei bezala, Oresako jaiak ere iritsi zaie amaiera, eta 19:00etan oilarra igo ondo-

ren amaitu zituzten aurtengo festak. Ziur jada 2012ko Santa Krutz festak iristeko desiratzen dagoela bat baino gehiago.

→ Laburrak

Txosna batzordeak bilera egingo du, gaur

IBARRA ▶ Txosna batzordeak bilera bat egingo du gaur gazte festen inguruan eta herriko festen inguruan hitz egiteko. Bilera kultur etxean izango da, 19:30ean. Txosna batzordeak herritar guztiei dei egin die eta bileran parte hartzera gonbidatu ditu, beraien ekarpenak egin ditzaten.

Elduaingo haurreskolan matrikula epea zabalik

ELDUAIN ▶ Elduaingo Haurreskola Publikoan matrikula egiteko epea irekita dago hilaren 13ra arte. Matrikulatutako haurrak irailaren 6an hasiko lirateke haurreskolan. Matrikula haurreskolan egin daiteke, 07:30etik 18:30era. Hala ere, haur bakoitza gehienez 8 orduan egon daiteke bertan. Eskaerak jaso eta entregatzeko inprimakiak haurreskolan bertan eskura daitezke. Informazio gehiago nahi duenak, deitu: 943 683 589 zenbakira.

Guraso eskolak bi saio berri antolatu ditu

ARESO ▶ Aresoko Guraso Eskolak haurren heziketaren gaia landuko du 2 saioekin. Lehenengoa bihar izango da, 15:00etan, eskolan. Bigarrena, hilaren 12an ordu eta leku berean izango da. Gabi Goia izango da hizlaria bi saioetan. Lehenengoa, seme-alaben arauari buruz hitz egingo du. Bigarrenean, aldi, seme-alabekin erabili beharreko autoritateari buruz hitz egingo du. Guraso guztiak gonbidatuta daude bi saioetan parte hartzera.

Hilberriak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



ISABEL MAIZ ZABALETA

(Pedro Ormaetxea-ren alarguna)

Maiatzaren 3an hil zen, 91 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkapena hartu ondoren.

- Goian Bego -

Seme-alabak: Jorge eta Mari Jose Albisu, Mila eta Ramon Lizartza; bilobak: Leire eta Imanol, Amaia eta Jon, Olatz eta Arkaitz, Nerea eta Imanol; aizpa: Bitoriana; ezkon anaia: Edmundo Diaz, ilobak, lehen-gusak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde, otoi bat eskatzen dizuzte eta arren etor zaitzetea, GAUR ASTEAZKENA arratsaldeko ZAZPIETAN, Tolosako CORPUS CHRISTI parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Tolosan, 2011ko maiatzaren 4an

Hilbidea: Kondeko Aldapa, 28 - 3. ezp. **OHARRA:** Gorputz beldu Tolosako FUNERARIA ORIA TANATORIOAN egongo da, GAUR ASTEAZKENA arratsaldeko 16:45ak arte.

HILETAREN BALIOA
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakoitzak bere neumiko hileta izan behar duela. Horregatik, alor honetan lider garenaz, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazena da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendariak: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitateak: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoetardea: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

Hitza-k
Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketza, Anoeta, Areso, Belauntza,
Berastegi, Elduain, Herrialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia ◊ XIII. HITZA Argazki Lehiaketa

LANDETATIK ALBUFERA ALDERA

XIII. HITZA Argazki Lehiaketarako bi argazki hauek bidali dituzte Edurne Gomezek eta Myriam Lizarralde. Lehenengoa Landatan aterata dago, Vieux Boucaun, eta bigarrena, Valentziako Albuferan. Gogoratu parte hartzeak argazkiak thargazkiak@hitza.info helbidera bidali behar direla, eta azken eguna maiatzaren 13a izango dela. E.G./M.L.



Agenda

ERAKUSKETAK

■ **Tolosa.** Naroa Armendarizen *Perla Pinturak* Aranburu jauregian maiatzaren 7a arte. Ordu-tegia: 17:30etik 20:30era jaieguna eta astelehenak izan ezik.
■ **Tolosa.** Jose Benito Ruizen *Giza izaera eta izadia* argazki erakusketa Aranburu jauregian Naturaldia jardunaldien barruan maiatzaren 31 arte.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** M. I. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Urte askoan!

Urki Artola Amundarain (Tolosa).
Gaur 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat denon partetik.

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

●● agurrak

Zorionak!

Amair Leunda Elorza (Tolosa).

Zorionak zure lehen urtebetetzean. Muxu pottoloak aitona-amonak, izeba-osaba eta Landerren partez.



Gurpil zoroan?